

EUZKEREAREN ALDEZ

(BIZKAI'KO EUZKERAZ.)

Zar-edo-zer, bai-dogu geure euzkera gaxuaren aldez egin, geure aldi iñuntzu onetan; baña oraindik bide luzia daukagu ibiltzeko euzkeltzaliok. Jaungoikuaren urkazpidiaz, baña, gustija jadetsiko dogu. Gaur bai-doguz idaztiño batzuek euzkerearen aldez ekiñen dabenak. Ara emen euroen ixen gomutagaríjak: *Revista Internacional*; Urkixo'tar Jul'ena, ta *Euzkadi* (1), Bilbao'kua: bijak dira euzkeltzaliak, bijak egiten dabe alegiñak euzkerea garbifu, eutsi ta zabaltzeko. ¡Jaun Goikuak onetsi begiz euroen artezkarijak eta idazlarijak!

Baña geyago, be, egin biar dogu, neure irakurle ona: bai-dakixu zelan geure aldi baltz onetan, iratzi yakozan geure ele mañekorari itz arotz asko, ta eraz da yakiten zegañik. Gabiltzaz nastaurik euzkeldun edo euzkeradun geyenok erdeldunakin ala erdeltzaliakin... eta geure euzkerea doya, lots beterik, igeska geugandik. Laster gaur baño mañetasun geyago ezpadau idorotzen geure artian, ilgo da. Eta autoörtu biarko dogu geu-geronek erijotzia emon dautsagula. ¡Auxe bai dala zorigaiztua!

Biarba iñandu daike noronok: ¿Zegañik esazu euzkeldunak beraek ilgo dabela euzkeria: ta ez-arotzak edo erbestetarak? ¿Ez dabe onek, ba, alegin ixukoñ ta ziñalak egifen bera azpiratu, betu ta suzitzeko? — Bai noski ta egiz; baña alpeñikuak ixango litxatekez euraen alegiñak euzkeldunok bera mañetan ba-genduke benetako mañasunaz.

Euzkeldunok daukagu aukeria geure elia biarezkua egiñeko, ta auxe da beraren bide egokizkuena bixi ixan dedin aldi gustijaetan. ¿Eta zelan

(1) *Euzkadi*: auxe da euzko-gustijen batzaren ixena: pantzeraz: *la réunion des peuples vaskes*; españeraz: *el conjunto de los pueblos vaskos*.

egin daikegu biarézkuia geure elia? — Egin daikegu, geuce otsein eta jopu danak euzkeradanak ba-dira; egin daikegu geure alogeradun gustijak ba dira euzkeradunak, nai dirala geure etzetakuak nai geure erijetakuak. Onexaz-ganetik idaztolatako (1) idazlari, saidoki ta olagixonak be ixan biar gendukez euzkeidunak. Oian egin ezkeru, euzkerea, era baten beintzat, biaréskuia ixango litzateke ta ele biarézkuak ez dira iltzen.

Baña bide gustijaen artian egizkuena ta egokixena geure euzkerearen aldez egiteko da euzkel-irakastolea (2) irastia: auxe bai dala biar-biarézkuia; auxe ixango litzateke gauza onena. Euzkel-irakastolearen bidez, ba, geure ele mañe ta laztantzuba garbitu, eutsi ta zabaldu daike; euraen bifartez euzkerea bixiko litzateke aldi gustijaetan.

Eleren (3) batek ezpa-dauka irakastolarik, laster bera itz-egiten dabenak, nastauko dabe euroen uraldietarikuakin eta beriala aitzuko dabe euraena, ikasteko ludiñik (4) ibiltzeko obiagua dana.

Euzkel-irakastoleak, be, dira biar biarézkuak. diñogu, Euzkadi'ko euzkeldunak ikasi dagijen irakurtzen eta idazten euzkeraz ta eztakijenak be, ikasi dagijen euroen abeada zarako elia, euroen Aberijaren (5) elia.

¿Zegatik uste dauzu, neure irakurle ona, euzkeidun askoen burabetatik igesa egin dabela euroen umetako eliak, euroen asaba zararen euzkeriak? Bada, eztabeiako ikasi irakuri ta idazten euroen euzkeraan, au da, ez dabelako ixan irakastoleak non ikasi. Eta Eri batak ezpa-daki irakuri ta idazten beraren elian, ele ori beinguan suziñuko da atatutako eritarak aukeria ba-dabe besterena ikasteko. Auxe da egi-egija. Noronok (autoñtzen dot) ikasi daike; baño geyenak, ez. Au geure begijaen aurian dagan gaya da ta edonok daki, ikuskarija da, ba. Eztaukagu begitaldu baño geure euzkereagaz jazoten dana. ¿Zembatek gaur irakuri ta idazten dabe beragan? Gitxik, egiz. Bakanak dira gaur euroen idazkijak egiñen dabenak euzkeraz, jakiñaren itz-egijñen. ¿Zer diñogu idazten? Bai-dira euzkeldun asko irakurtzen (6) eztakijenak bez. ¡Auxe da geure lotsari nagosijena! ¡Geure eliari yazoten yakona, etxako yazoten ele bateri bez, ludi gustijan, Eri-Kistara ba da beintzat!

Eta zegatik, esten dauzu irakurle euzkeltzalia, zegatik deritxatzu geure euzkeldun askoen espanak oguzten (7) dabela erderatiko itz-kopuru

(1) Idaztola (idatzi-ola) = esp. *escritorio*. — Idazlari = esp. *escritor*.

(2) Irakastola (irakatsi (t) ola) = esp. *escuela*.

(3) *Ele* = esp. *idioma*. — Euzkel (euzko-el) = esp. *idioma vasko*.

(4) Ludi (luidi) = esp. *la tierra que habitamos*.

(5) Aberi (aba-eri) = esp. *patria*.

(6) Irakuri = esp. *leer*.

(7) *Oguzi* = esp. *pronunciar*.

ain andija? Oréxegatik, eztabelako ikasi euzkerea irakastolaetan. Érde. rea bai ikasi dabe ta augaṭik, ele onetan, itz-egiten dabenian, garbi ta ziatz egifen dabe; euzkeraz, baña... ¡Zenbat itz erderatikuak oguzten dabe! Eta au jakiñaren zelan esan euzkeraan. ¿Nork zenbatu daikez itz orék? Iñok bere ez. ¡Ainbeste dira...!

¿Ez ete da geure euzkerea zorigaiztua Jaungoikuak egin dauna? Baña auxe jazoten da ta jazo be biar'ko da, geruago ta geyago, euzkerazko irakastoleak ezpa dira ainbat lasterén irasten euzkelerijetan, beintzat.

Onez ganetik, irakastolaetan, eztañan euzkerea ikasi bera daike. Ezautzen doguz mutil gaste batzuk ikasi oi dabenak. Onek, benetan, dautsoe geure euzkera gaxuari bijotzetiko mañasuna; onek irakusten dabe egikintzakin dabela mañasun egizkua euzkereari; onek dira euzkel-tzale bene-benetakuak; onek eutsiko dautsoe geure eliari il ez dedin. ¡Jaun-Goikuak eurak zaindu begiz, ixateko beti Beraren eta euzkerearen aldez !

Euzkel irakastoleak dira, ba, biar-biairezkuak, geure elia garbítu, eutsi ta zabaltzeko Euzkadi'ko bazter gustijetatik. Euzko seme orok egin biar dogula alegiña, esten dogu, eurak irasteko geure eri gustijaetan. ¿Zetarako ete da geure dirua orélarako ixan ezik? Geure Euzkadi'ko sei laterijak, Araba, Gipuzkoa, Laburdi, Nabara (*goikua* ta *bekua*) ta Bizkaya'k dabezan diruak ixan dedizala geure euzkera zar ta aberatzaeren aldez, bera itz-egiteko eta ixateko be zoriñondunak emen bian eta gero goyan.

Bermeo'n (Bizkaya), Otsaia — 10'an.

ALBIZURI'TAR SERAPIN.

